



ARAUTEGIA

GIMNASTIKA ERRITMIKOA 2025

Eusko Jaurlaritzaren Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak, Euskadiko Gimnasiako Federazioarekin lankidetzan, EUSKADIKO XLII. ESKOLARTEKO KIROL JOKOAK antolatuko ditu, 2025ko maiatzaren 24an Gasteizko San Andres Kiroldegian. Hona hemen arautegia:

1. PARTAIDETZA:

Infantil, 2011 eta 2012 urteetan jaioetako neska mutilak eta alebin, 2013 eta 2014 urteetan jaioetako neska mutilak.

Partaideen eskola kiroleko lizentziak aurkeztu beharko dira, edo bestela, parte-hartzaileen triptikoa, dagokion Foru Aldundiaren zigilu eta sinadurarekin. Horiek aurkezten ez badira, NAN edo pasaporte originala aurkeztu beharko da aktan inskribatu ahal izateko, bestela, ezin izango du ekintzan parte hartu

2. JOKATZEKO MODUA

➤ Banakako lehiaketa:

Alebinak: ariketa bat eskuak libre direla eta beste bat sokarekin.

Infantilak: uztaiarekin eta sokarekin ariketa bana.

➤ Taldekako lehiaketa (conjuntos):

Alebinak: ariketa bat bost edo sei pilotekin.

Infantilak: ariketa bat bost edo sei uztaiekin.

➤ Taldeen modalitateko lehiaketa (ekipoak):

Alebin Ekipoa: Esku libreko ariketa bat eta soka-ariketa bat.

Infantilak Ekipoa: Soka-ariketa bat eta uztai-ariketa bat



➤ Taldeen osaera

Lurralde bakoitzak alebin mailan hiru talde aurkez ditzake, bost edo sei gimnasta titular eta ordezeko batez osatuak, talde bakoitzeko ordezkari edo entrenatzaile bat ere egongo da bai alebin zein infantil eta neska zein mutil kategorietan.

Banakako modalitatean, lurralde bakoitzak, kategoria bakoitzeko bosna gimnasta aurkez ditzake gehienez eta ordezkari edo entrenatzaile bana.

Taldeen (equipos) modalitatean, lurralde bakoitzak gehienez 3 talde aurkeztu ahal izango ditu kategoria bakoitzeko, baita ordezkari bat edo entrenatzaile bat ere kategoria bakoitzeko.

Taldekako (conjuntos) lehiaketan kirolari berdinak ezingo du bi talde ezberdinetan parte hartu.

Ariketa ezberdinen balio teknikoak Gimnasia Erritmikoko Euskal Federaziok argitaratutako arautegi eskolarraren arabera izango dira.

Talde, gimnasta edo ekipo bakoitzak bere musika eraman beharko du (grabazio berri bat) usb formatuan, eta entrenatzaileak eduki beharko du, erreprodukzioaren audioan arazorik ez izateko.

4. SARIAK

Ondorengo sariak emango dira:

➤ Taldekako lehiaketan:

Domina bana lehen, bigarren eta hirugarren sailkatutakoei kategoriako.

➤ Banakako lehiaketan:

Domina bana lehen, bigarren eta hirugarren sailkatutakoei kategoriako.

Aparatu bakoitzeko lehen, bigarren eta hirugarren sailkatutakoei.



EUSKADIKO XLII. ESKOLARTEKO KIROL JOKOAK **XLII JUEGOS DEPORTIVOS ESCOLARES DE EUSKADI**



➤ Talde (ekipo) lehiaketan:

Domina bana lehen, bigarren eta hirugarren sailkatutakoei kategoriako.

Aparatu bakoitzeko lehen, bigarren eta hirugarren sailkatutakoei.

5. EZBEHARREN AURREAN.

Lesio edo ezbeharrik sortu ezkeror nahi eta nahi ez antolakuntzak kirol eremuan izango duen arduradunarengana jo beharko da. Honek eman beharreko gainontzeko pausuak bideratuko ditu.

6. AZKEN OHARRA

Arautegi honetan azaltzen ez diren kontuak argitzeko, ondorengo testuak hartuko dira kontuan:

- a) 2/2023 LEGEA, martxoaren 30ekoa, Euskadiko jarduera fisikoaren eta kirolarena.
- b) 125/2008 DEKRETUA, uztailaren 1ekoa, Eskola Kirolarena.
- c) 391/2013 DEKRETUA, uztailaren 23koa, eskola-kiroleko lehiaketan diziplina-araubideari buruzkoa
- d) AGINDUA, 2025eko urtarrilaren 8koa, Jaurlaritzako Lehenengo Lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politika sailburuarena, 2025eko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XLII. edizioaren deialdia egiteko dena.
- e) Ebazpena, 2025eko otsailaren 4koa, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren zuzendariarena, 2025eko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XLII edizioako lehiaketako epaile bakarra izendatzen duena.
- f) Gimnasiako Euskal Federazioaren Arautegiak agindutakoa.

Euskara eta gaztelaniazko araudien interpretazioetan ezberdintasunak izan ezkeror, gaztelaniazkoa lehentasuna izango du.